

KANTUZ- AMAIA SASIAIN, AITZIBER ETXARRI, KRISTINA BARRENETXEA ETA EVA ARROSPIDE

"Koruan hasten direnak harritu egiten dira; adin eta giro hain ezberdinetako jendea bildu eta denek hain ongi pasatzean"

■ 1989an sortu zen Kantuz abesbatza eta egun 52 kide inguru biltzen ditu ■ Milagrosan biltzen dira astelehen eta asteazkenetan.

HAMASEI urte dira koroa sortu zela. Papeleoa, irteerak, erakundeekin harremanak, urteko programa, eta abar, antolatzeko junta bat dute koroan eta junta horretako kide dira Kristina Barrenetxea, Aitziber Etxarri, Eva Arrospide eta Amaia Sasiain (azken hau koroko zuzendaria ere bada). Milagrosan elkartu gara beraiekin lehen entsaioaren aurretik; Amaiak prest ditu piano gainean, txukun-txukun pilatuta aurten ikasi beharreko lehenengo kantak.

■ Zein motatako kantak kantatzen dituzue? Nola auke-ratzen dituzue kantak?

Kantak zuzendariak aukeratzen ditu. Iaz inkesta bat pasa genion koro osoari bakoitzak bere preferentziak adieraz zitzaizkien, jendeak zein kanta mota kantatu nahi zuen jakiteko. Koroa herrikoia da, jende asko gara eta denentzat atsegina den errepertorioa osatu behar duzu; gero eta anitzagoa, errazagoa da jende gehiagori iristea.

■ Kanpora ere atera izan zarete, ezta? Nora?

Duela bi urte adibidez Kataluniara joan ginen. Iaz ez ginen atera, niretzat (Amaia Sasiain, zuzendaria) lehenengo urtea zen eta nahiago izan nuen hemen gelditu, baina ea aurten pixka bat gehiago mugitzen garen.

■ Zuek ere antolatzen dituzue emanaldiak; topaketak... Bai, topaketak adibidez hiru herritako koroek antolatzen ditugu, txandaka. Pasa den urtean Hernanin izan zen, aurten Andoainen izango da eta hurrengoan Lasarten.



Kantuz Abesbatzak entsaioak hasi berri ditu.

Gabonetan gabon kanten jaialdia antolatzen da; ikastolak, musika eskolak eta herriko talde ezberdinek parte hartzen dute. Preludioaren antolaketan ere parte hartzen dugu beste taldeekin batera.

■ Zer behar da koroan sartzeko?

Ondo pasatzeko gogoia, kantatzeko gogoia. Harrera ona egiten zaie denei. Froga bat egiten zaie koroan kokatzeko; sopranoa den, kontraltua den...ez da behin betikoa izaten, ez da fidagarria inoiz kantatu ez duen pertsona batek lehenengo froga batean egiten duena.

Entsaio aurretik teknika lantzen dugu kantatzen ikasteko eta koroaren pertsonalitatea indartzen joateko.

■ Koro honek hala ere badu beste bereizgarri bat; afariak...

Bai, bai! Aktuazioko afari bat

egiten dugu eta afarietan antzerkiak eta horrelakoak egiten ditugu. Hori taldean dagoen giro onaren islada da. Hain jende ezberdina biltzen duen taldea izateko oso ondo moldatzen den taldea da; oso giro ona dago eta katxondeoan hasi eta horrelako gauzak ateratzen dira; afariak, antzerkiak...

Sartu berria den jendeari horrek sortzen dio harridura gehien. Adin hain ezberdinak, giro hain ezberdinetatik etorritako jendea bildu, afari bat antolatu eta denek hain ongi pasatzeak. Horregatik bakarrik merezi du etortzeak.

■ Baduzue urte honetarako proiektu berezirik?

Ez dugu proiektu berririk baina asmoa hemendik pixka bat irteera da. E-mail batzuk bidali ditugu Araba, Bizkaia eta Nafarroako federakuntzetara beste koro batzuekin harremanetan jarri eta interkanbioak edo egiteko. Oso urrutira joan gabe baina Gipuzkoatik kanpora behintzat irteteko gogoz dago jendea. Urtean behin gutxienez ateratzea gustatzen zaio jendeari.

Pasa den urtean kanpoan izan ez ginenez Lizarrara irteera egin genuen. Entsaio intentsibo batzuk izan ziren; jendeak oso ondo pasa zuen, uste baino gehiago entsaiatu genuen gainera, primeran atera zen.

■ Zer esango zenikete jendeari koroan sar dadin animatzeko? Jende asko dago inoiz musika mundura hurbildu ez dena, horretarako aukera bat izan daiteke. Alderantziz ere bai; solfeo ikasketak egin ditza-kezu ez dakit zenbat urtetan baina agian ez duzu inoiz pausu hori eman, ez duzu inoiz kantatu. Zure burua frogatzeko modu bat izan daiteke. Solfeo

ikasketak egin eta askotan egin-dako esfortzua hutsean geratzen da eta hemen irteera bat izan dezake lan horrek guztiak. Proba dezatela.

Badago koroak aspergarriak izan behar duten irudia baina ziur askok sorpresa handia hartuko luketela hurbilduko balira. Koroan dagoen edozeinen inguruko jendeari galdetuta denek berdina esaten dute. *Se lo pasan cañon!* Eta egia da.

Normalena horrelako talde handietan talde txikiagoak sortzea izaten da; gurean ez da halakorik gertatzen, afari bat egiten baduzu edozeinen ondoan jartzen zara, giro oso ona dago denen artean. Gazteak helduagoekin...berdin dio; harrigarria da halako aniztasuna dagoen talde bat hain elkartuta egotea.

■ Batez ere zein jenderen beharra nabaritzen duzue koroan?

Gizonak, batez ere gizonak dira behar ditugunak. Eta jende gaztea. Anima daitezela, gutxi gara gazteak baina gaudenak oso ondo pasatzen dugu. Gutxienez proba dezatela. Konpromezurik gabe; gero aspertzen badira utziko dute. Asteazkenetan izaten da derrigorrezko entsaioa eta astelehenetan etortzea aukerakoa da.

Duela bi urte zortzi bat pertsona sartu ginen eta hasieran asteazkenez bakarrik etortzea erabaki genuen probatzeko, lasai hasteko. Baina gero kuriositatea sortzen zaizu; zer gertatuko da astelehenetan? Eta azkenean bi egunetan etortzen bukatu genuen ez genuelako ezer galdu nahi; harremanei dagokionean eta taldearen dinamika osoari dagokionean. □

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Kardaberaz 39
Tel.: 943 55 27 87
20120 Hernani

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK

Erkerro
Fruituak

Bertako produktuak
Fruitu exotikoak

Telefonoz eskatzeko:
943 33 32 75

Orain helbide berrian gaituzu:
Antziola 5

HERNANI
HIZKUNTZAK
(Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK guztiontzat
Advanced eta First
azterketak gaingidteagatik.

DATORREN
IKASTURTERAKO

MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1

LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO
GOI MAILAKO TEKNIKARI
MASTERRA

✓LANEKO SEGURTASUNA
✓HIGIENE INDUSTRIALA
✓ERGONOMIA
✓Urriak 1-ean

MATRIKULAZIO EPEA
IRAILAK 20an bukatuko da.

UROLALDE AKADEMIAN dauzkazun aukerak:

- IKASTAROAK	- MEKANOGRAFIA	- ENPRESEI SUBENTZIOAK
- HIZKUNTZAK	- HAUR, GAZTE ETA	LORTZEKO AUKERA
- OFIMATIKA	HELDUENTZAT	

UROLALDE, S.L. - Onddi kalea, 1. - Tel.: 943 33 37 11 - HERNANI



Egurrez kargatutako kamioiak autobusaren kontra jo zuen.

Bi kamioi eta autobus batek istripua izan zuten atzo Axalako kruzean

■ Eguerdiko 13:00ak aldera egurrez kargatutako kamioi batek, beste kamio baten kontra eta autobusaren kontra jo zuen ■ Ez zen zauritu larrik izan.

ATZO eguerdiko 13:00ak aldera istripua izan zen Axalako kruzean. Istripua sufritu zuten egurrez betetako kamio batek, beste kamio batek eta Aietera zijoan autobus urdinak. Hiru ibilgailuek muturrak txikituta zituzten, baina ez zen zauritu larrik izan. Hala ere, kamio batetako gidariak larriak ez ziren zauriak izan zituen eta medikutara eraman zuten.

Testigu batek esandakoaren arabera, egurrez betetako kamioiak beste kamioia ez jozteagatik ezkerretara egin zuen eta Aiete aldera zijoan autobusa jo zuen. Istripuaren ondorioz Donostiatik Urnieta bidearen karril bat moztu zuten eta karretera hau hartzeko bidea ere bai. □



Muturra txikitutako kamioietako bat.

JASOTA BEZALA

Rekondok ez dio erantzun Bildu Hernaniri.

Bildu Hernanik duela hilabete batzuk Udal Erroldan egindako informazio eskariari buruz plenoan galdetuta, Joxan Rekondok erantzuna "bidali" duela esan digu, nahiz eta guk oraindik ez dugun erantzun hori jaso.

Bilduk udalean idatziz egindako azkeneko bi informazio eskaeren erantzunik ez du jaso ez plenoaren egunean (irailak 9) ez eta lerro hauek idazterakoen ere. Eskaera

zehatza Bildu Hernaniri Pleno eta Batzordeetako gai ordenen kopiak bidaltzea eta Sarrera eta Irteera Erroldaren kopiak bidaltzea da. Erantzuna oso erraza da, bidali edo ez bidali.

Agian erantzun du, oraindik guk jaso ez arren...Hala ere martxoak 12an egindako informazio eskari bati Irailan erantzutea, 6 hilabete ondoren erantzutea, erantzun bat al da? Noski erantzun bat dela, apartheid politikoaz baliatu eta areagotzea da hain zuzen ere.

Noizbait jasoko dugun erantzun honen edukiaren arrastorik izan gabe apartheid politikoari aurre egiteko borronte (l)apurrik ere ez da antzematen Hernaniko Udalean.

Zer da Bildu Hernaniren informazio eskaerei sei hilabetera erantzutea (noizbait jasotzen badugu)? Hernaniko 3661 herritarrek behar duten erantzuna ez behintzat.

Ixiar Miner, Bildu Hernani Udal Taldearen izenean.

Txu-txu tren jarriko du berriro ere Berriak elkarteak

KALEAN txu-txu tren jarriko du Berriak elkarteak datorren ostiralean, hilaren 17an. Lehenago ere jarri zuten txu-txu tren kalean, ekainaren 18an, eta honek izandako arrakasta ikusita errepikatzea erabaki dute. Os-

tiral honetan tren arratsaldeko 17:00etatik 20:00-etara jarriko dute eta Gudarien plazatik aterako da. Berriak elkarteak gazteak eta haurrak animatu nahi ditu trenera igo eta herrian barrena buelta bat egitera. □

Molotoff irratiko programazio berriari buruzko bilera gaur

MOLOTOFF irratian irratia egin nahi dutenek zita dute gaur arratsaldean. Izan ere, Molotoff Irratiak urrirako programazio berria martxan jarri nahi luke eta programazioan zein irratia izango diren zehaztu nahi dute gaurko bileran. Bileraren arratsaldeko 20:00etan izango da, Sagastialde 16ko lokalean.

Bestetik, irratiko aparatuek erabiltzen ikasteko ikasta-

roa egingo du irratia eta ikastaroa irekia izango da, ez irratian arituko direnentzat bakarrik. Lau egunetako izango da: irailaren 14 eta 16an aurretik irratian aritu direnentzat egingo dute ikastaroa; eta irailaren 21 eta 23an hasi berrientzat. Ikastaroa dohainik da eta arratsaldeko 20:00etatik 21:30-etara egingo da irratiko estudioan. □

Osiñaga auzo elkarteak Bastidara bidaia igandean

OSIÑAGA auzo elkarteak eskurtsioa antolatu du aurten ere udarari amaiera emateko. Bidaia Arabar Errioxara egingo dute eta irteera goizeko 08:30etan izango da Loiditik edo Bordaberritik. Hamaitakoa egiteko Gasteizen geldituko dira eta bazkaria Errioxako Bastida herrian

egingo dute, Zaldivar Bodegan. Bodega honetan ardoa nola egiten den ikusteko aukera izango dute. Bazkaldu ondoren inguruko herriak bisitatuko dituzte.

Autobusa auzo elkarteak ordainduko du eta bazkaria norberak. Prezioa 30 eurokoa izango da. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalaria anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

☼ FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- Gauetz: Urbistondo Lasarte. San Francisco 1B ☎ 943 366567

IRAGARKI MERKEAK

Itziar Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... ☎ 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko pertsona behar da. Goizetan egingo luke lana. Deitu: 689 144 881

GAUR 50 URTE EZKONDU ZIREN



IRENE ~ ANTOLIN
ZORIONAK FAMILIKO GUZTIEN PARTETIK